

## Lan-deialdia:

### Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Enplegu teknikaria

#### ESKAINTZEN DA:

- Lanpostua DONOSTIAN, baina lan-eremua Euskadi osoa izango da.
- Lan-kontratua lanaldi osoan.
- Urtean 33.435€-ko soldata gordina.
- EGKren akordio kolektiboak araututako lanpostu bat eta EGK-ko Batzorde Iraunkorraren ardurapean.
- Lantalde gazte eta dinamiko batean parte hartzea.
- Gizarte eta politika publikoetan Euskadiko gazteriaren eskubideen alde lan egitea, bereziki enpleguaren alorrean.

#### LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Enpleguaren, lan-baldintzen eta gazteen emantzipazioaren arloko politika publikoak aztertzea, ebaluatzea eta lantzea.
- Enpleguarekin eta lan-eskubideekin lotutako proiektuak eta kanpainak diseinatu, kudeatu, inplementatu eta ebaluatzea.
- Gazteen egoeraren analisi soziolaboralak egitea, problematikak, joerak eta aukerak identifikatuz.
- Lanaren eta enpleguaren arloko legeria aztertzea eta interpretatzea, proposamenak eta posizionamenduak landuta.
- Datu sozioekonomikoekin lan egitea, eragin politikoko estrategiak garatzeko.
- Eragin politikoa duten ekintzak bultzatzea gazteen enpleguaren eta emantzipazioaren arloan.
- Elkarrekin, gizarte-eragileekin, taldeekin eta gazteekin harreman zuzena izatea, partaidetza-prozesuak sustatuz.
- Enpleguari eta lan-baldintzei lotutako lantaldeak dinamizatzea eta koordinatzea.
- Administrazio Publikoarekin batera lan egitea (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, mankomunitateak, etab.), bereziki enplegu- eta gazteria-arloetan.
- Elkarrizketa instituzionaleko eta sozialeko espazioetan parte hartzea, proposamenak eta jarrerak helaraziz.
- Ekintzak koordinatzea EGK-ko lan-arlo guztiekin.
- Behar izanez gero, adierazpen publikoak egitea eta komunikabideentzako analisiak egitea.

#### ESKATZEN DA:

- **30 urte baino gutxiago** izatea.
- Goi-mailako titulazioa, ahal dela zuzenbidean, lan-harremanetan, giza baliabideetan, gizarte-zientzietan edo antzekoetan.
- EAEko gazteen errealitate soziolaborala ezagutzea, bereziki enpleguari, lan-baldintzei eta emantzipazio-prozesuei dagokienez.
- Lan-legeria eta enplegu-politika publikoak ezagutzea.
- Lege-dokumentuak, txosten teknikoak eta datu soziolaboralak aztertzeke gaitasuna, ondorioak eta proposamenak aterata.
- Proiektuak eta kanpainak diseinatzeke eta kudeatzeke esperientzia edo gaitasuna.

- Lantaldeak eta parte hartzeko prozesuak dinamizatzeko eta koordinatzeko gaitasuna.
- Erakunde publikoekin eta gizarte-eragileekin hitz egiteko gaitasuna.
- Euskararen eta gaztelaniaren maila altua, ahozkoa zein idatzizkoa (C1, EGA edo baliokidea).
- Ordutegi- eta geografia-malgutasuna.
- Ikasteko gaitasun handia.

### BALORATUKO DA:

- Lan-eskubideetan, lan-harremanetan, giza baliabideetan edo eragin politikoa esperientzia edo prestakuntza izatea.
- Datu soziolaboralak erabiltzeko eta interpretatzeko gaitasun analitikoa eta esperientzia.
- Talde-lanerako gaitasuna: pertsona malgua, proaktiboa eta ekimena duena.
- Beharrak identifikatzeko, proiektuak diseinatzeko eta gauzatzeko autonomia.
- Hainbat proiektu aldi berean antolatze eta kudeatzeko gaitasuna.
- Komunikatzeko eta harreman pertsonaletarako trebetasunak.
- Sormena eta ekimena kanpainak eta proposamenak garatzean.
- Ingelesa edo beste hizkuntza batzuk jakitea.
- Informatikako eta ofimatikako tresnetako gaitasunak

### HAUTAGAITZA AURKEZTEKO:

- Epea: **apirilaren 16tik 28ra, 12:00etan.**
- **Sartu eta bete [datuak babesteko politika](#) (derrigorrezkoa).**
- **Curriculum eta motibazio gutuna bidali** [egk@egk.eus](mailto:egk@egk.eus) helb.idera.  
Posta elektrikoaren gaia zehaztu: ENPLEGUA
- **Curriculum dokumentua honela izendatu:**  
[IzenAbizenak.CV\\_ENPLEGUA.pdf](#).
- **Motibazio gutuna honela izendatu:**  
[IzenAbizenak.KARTA\\_ENPLEGUA.pdf](#).

### AUKERAKETA PROZESUA:

Hauk izango dira prozesuan kontuan hartu izateko hainbat data:

- Curriculum eta motibazio gutunaren bidalketa, **apirilaren 28ra arte.**
- Idatzizko proba nork egin behar duenaren jakinarazpena, **apirilaren 30ean.**
- Idatzizko proba Bilbon, **maiatzaren 4an (printzipioz goizetik).**
- Elkarrizketa nork egin behar duenaren jakinarazpena, **maiatzaren 5ean.**
- Elkarrizketa, **maiatzaren 6an.**
- Lanean aritzeko hautatuaren jakinarazpena, **maiatzaren 7an.**
- Lanean hasteko data, **maiatzaren 11an.**